

2007an hasiko dira eraikitzen Nafarroako Liburutegi Nagusi berria Iruñean

Nafarroako Gobernuak 28 milioi euroko aurrekontua du eraikuntza lanak aurrera eramateko

Iñigo Astiz. Iruñea

Nafarroako Liburutegi eta Zinemateka Nagusi berria hurrengo urtean, 2007an, hasiko dira eraikitzen Iruñeko Mendebaldea auzoan, eta euskarri desberdinetako 1.815.000 dokumentu gordetzeko gaitasuna izango du. Yolanda Barcina Iruñeko alkateak eta Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernuako Kultura kontseilariak atzo aurkeztu zuten Iruñean Nafarroako liburutegi sarearentzat funtsezko garrantzia izango duen eraikin berria. 28 milioi euroko aurrekontua du Nafarroako Gobernuak lanak aurrera eramateko. Liburutegia eraikiko den orubea, ordea, Iruñeko Udalak eman du. Barcinak azaldutakoaren arabera, Mendebaldekoa iruditu zitzaion egokiena Udalekoei eraikinarentzat gunee zabala eta lekutsua behar zelako. Lanak 2007ko lehen hiruhilekoan dira hastekoak, hain zuzen ere beharrezko lizentziak eskuratu eta gero, eta eragozpen larriarik ezean, 2009an bukatuko dira. Orduan, San Frantzisko plazan dagoen liburutegiak Nafarroako Liburutegi Nagusi izateari utzi, eta Iruñeko Alde Zaharreko liburutegia izango da. Egun San Frantziskoko eraikina itota dago, Barcinaren iritziz, eta bere ustez, egingo den aldaketa herritarrek ere eskatzen zuten.

FUNTZIO ASKO

87 liburutegi daude egun Nafarroako liburutegi sarearen baitan. Horiek guztiak koordinatzea izango da Mendebaldekoaren eginbeharretako bat. Nafarroako ondare bibliografikoaren ardura ere izango du, eta Nafarroako liburutegi publikoak ordezkatzeko dituen Espainiako Liburutegi Sistemaren eta beste liburutegi sistemen aurrean. Liburutegi Sare Publikoaren langileen kudeaketa administratibo eta tekniko ere bere ardurapean egongo da, eta Iruñeko eta Iruñerriko Hiri Liburutegi Nagusia izanik, inguruko herritarrentzako liburutegi publikoa ere izango da.

Sotoa eta etxabeaz gain, bi solairu izango ditu liburutegiak, eta guztira 20.768 metro koadro. Etxabea izango da jendeari begirako zerbitzu gehienak izango dituen; mediateka, hemerroteka, liburuak maileguan uzteko zerbitzua, haurrentzako liburutegia eta kultur ekitaldietarako gunetarako sarrerak. Zinemateka, aldiz, sotoan izango da. Baita laborategia eta 250 pertsona sartzeko adinako erakusketa gela ere.

Manuel Ferrer Sala arkitektoak diseinatu du eraikina, berak irabazi baitzuen 2004an lehiaketa publikoa. Soila da eraikina eta inguruarekiko errespetuz betea, Corpasek azaldu duenez. Gainera, pertsona ezinduentzako erabat egokituta dago, zailtasunik gabe mugitu ahalko baitira liburutegiko gunee

guztietan. Eguzki panelak ere izango ditu eraikinak, eta haiekin lortutako energiarekin sortuko dira ur beroa eta elektrizitatea.

Liburutegiak izango dituen sailak

Hemeroteka. Etxabean egongo da hemeroteka, eta 500 bat eguneroko argitalpen izango dira ikusgai bertan.

Zinemateka. Hasiera batean Antonio Jose Ruiz zinemagile nafarrak Nafarroako Gobernuari emaniko materialak osatuko du zinemateka. Ikus-entzunezko 500 dokumentu izango ditu, 50 bat zinemagintzarako instrumentu, bai eta 70 bat entzunezko eta idatzizko dokumentu ere. Sotoan egongo da eta laborategia, kontsulta guneak eta 250 bat pertsona har ditzakeen erakusketa aretoa ere izango dira bertan.

Haurrentzako liburutegia. Etxabean egongo da haurrentzako liburutegia, eta 10.000 ale biltzeko lekua izango du. Liburutegi nagusiek haurrentzako liburutegia izatea ez da oso ohikoa, baina Barcinak azaldu du salbuespenaren zergatia: Haurrak txikitatik animatu behar dira irakur dezaten.

Mediateka. Etxabean egongo da mediateka eta hainbat euskarritako 19.000 dokumentu mailegatzeko aukera eskainiko du.

Liburuen mailegua. Etxabean egongo da eta hainbat euskarritako 100.000 dokumentu edukitzeko lekua izango du, denak ere maileguz eskuratzeko aukerarekin.

Nafarroako Liburutegia. Liburutegi berria eraiki arte Nafarroako Liburutegia San Frantzisko kalean egongo da. Nafarroako XV. mendeaz geroztiko idatzizko ondarea biltzen da bertan, eta baita Nafarroa osoko bibliografiarik osatuena ere. 2009tik aurrera, baina, dokumentuok Mendebaldean egongo dira.

Erakusketa guneak. Bi erakusketa gune izango dira liburutegiaren etxabean; dokumentuen erakusketarako bata, eta liburu, idazkera, irakurketa eta zinemagintzari eskainitako erakusketa iraunkorrerako, bestea.

Kanpoko plaza. Eraikinak kanpoaldean plaza gisako gune bat izango du eta hainbat kultur ekintza antolatuko dira bertan.

Liburu biltegia. Lehen eta bigarren solairuetan egongo da liburu biltegia, eguzkiaz behar bezala babestuta, besteak baino opakoagoa izango den aurrealdearekin.